

**DIPUTATU NAGUSIAREN DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusia	2013	22.704.587 euro
		2014	23.642.548 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Zerbitzu Orokorrak

Kodigoa 1.01

Generoaren garrantzia Gutxi

Aurrekontua 208.496

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta Departamentuaren portzentajea azken urteotan**

	2012	2013	2014	13/12	14/13
GASTUA (mila eurotan)	362,28	131,17	208,50	-63,79%	58,95%
% DPTUA. AURREKO.	2,19%	0,58%	0,88%	-73,61%	52,65%

Programa Departamentuak duen aurrekontuaren %0,88 da.

Programak jasotzen dituen helburuak, kolektiboak eta jarduerak

Helburua: Departamentuari esleitutako berdintasun planaren neurriak ezartzea

Kolektiboak: Administrazioaren langileei zuzendutako jarduera. Hiritarrengan zeharkako eragina du bakarrik.

Jarduerak: Plana burutzeko lanen inguruko proposamen eta jarraipen bilerak koordinatzea.

Generoaren ikuspegia kontuan hartuz Departamentuko aurrekontu programen analisia koordinatzea .

Kontratazio prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.

Diru laguntzak emateko prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.

Departamentuaren komunikazio ikus-entzunezkoetan eta idatzietan genero hizkuntza berrikustea.

Sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa proposatzea, beharrezkoa den tokian.

Analisi kuantitatiboak generoaren arabera

Goian esan den bezala, programak ez du eragin zuzenik hiritarrengan, administrazioako langileengan baizik. Departamentuari esleitutako planaren neurrien % 100 burutu nahi da 2014. urtean

DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA - DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusiaren Alorra	2013	22.704.587 euro
	Area del Diputado General	2014	23.642.548 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Diputatu Nagusiaren Kabinetea

Kodigoa 1.10

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 4.905.988

1. Taula
Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	18.015.296,00	4.496.124,00	11.233.713,00	4.905.988,00	-75,04%	149,85%	-56,33%
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO %	85,00%	27,17%	49,47%	17,60%	-68,04%	82,08%	-64,42%

Programaren helburuak, hartzailleak eta jarduerak

Programa honen kontura Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Buruzagitzak bere eginkizun bete ditu. Kabinetearen Buruzagitza diputatu nagusiaren jardunaren euskarria da, eta foru gobernuaren zuzendaritza eta kudeaketa egiteko behar duen laguntza ematen dio. Eta baita lurraldearen interes nagusien sustapena ere.

Orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiak garatzen dituen politika publikoak koordinatzen ditu Aldundi barruan.

Beraz, Diputatu Nagusiaren Gabinetek Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika guztietan genero ikuspegia txertatzeko sustapen lana bultzatzen du.

Bestalde, Diputatu nagusiak Gizarte eragileekin aldizka-aldizka bilerak izaten ditu: sindikatuekin, enpresariekin, unibertsitateekin, komunikabideekin, hainbat elkarterekin eta abarrekin, eta jarraitzen du udalerriekin (erakundeekin eta herritarrekin) dituen harremanetan sakontzen.

Programa honetako ekintzarik adierazgarrienen artean aipatu ahal izango lukete lurralde-garapena bultzatzeko akzioak; Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzak hitzarmena Mikel Laboa Katedra garatzeko eta mantentzeko; Hirumugarrietako Gaindegia Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenaren Behategiarekin sinatutako hitzarmena errealitate sozioekonomikoa aztertzeko urtean zehar; eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kanboko (Lapurdi) Xalbador Kolegioaren artean sinatutako hitzarmena, Kanboko ikastetxea berregituratzeko eta handitzeko.

Jarduera hauen ariketan, Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Buruzagitzak dagozkion kontratuetan eta hitzarmenetan berdintasunari buruzko klausulak sartzea bultzatzen ditu.



Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

DIPUTATU NAGUSAREN ALORRA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusiaren Alorra.	2013	22.704.587 euro
		2014	23.642.548 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Herritarren Partaidetza

Kodigoa 1.11

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 1.274.422

1. Taula
Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia

	2012	2013	2014	13/12	14/13
GASTUA	1.030.000,00	769.000,00	1.274.422,00	-25,34%	65,72%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %	6,23%	3,39%	5,39%	-45,59%	59,15%

Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduerak
Helburu estrategikoa:

Parte hartzeko demokrazian aurrerapausoa egitea eta gipuzkoarrek erakundeetako zereginetan eta lurraldeko proiektuetan parte hartzeko eta erabakietan eragiteko gaitasuna sustatzea. Herritarrek parte hartzea naturaltasunez bizitzea, eta lurraldea kudeatzeko garaian, herritarren eta erakundearen arteko harremanetan elementu eta eskubide nagusia izatea.

Helburu orokorrak:

1. Lehentasunezko proiektu estrategikoen aurrean Gipuzkoako Foru Aldundiak izango duen jarrera herritarrekin batera zehaztea eta herritarrek kontzientzia hartzea erabakian parte hartzea oinarrizko eskubidea dela eta lortzea posible dela guztion borondatearekin.
2. Kabineteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren parte hartzea eta beste zeharkakoak modu integralean eta departamentu bakoitzetik lantzeko gaitasuna sustatzea eta laneko sisteman integratzen hasten dela bermatzea.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta herritarren artean elkarriketa zuzena izateko sistema bat martxan jartzea, herritarrekiko komunikazio iraunkorraren bidez, zein herritarrek erakundearen lanari buruz egingo duten feedback-aren bidez.
4. Herritarren parte hartzeko alorrean udalen lana artikulatzea eta sustatzea, udalen arteko sarea sortuz eta elkarrengandik ikasiz.



Herri erakunde eta mugimenduekin elkarrizketarako guneak zabaltzea eta parte hartzea sustatzeko gaitasuna indartzea.

Plan honek 5 ardatz ditu:

1. Proiektu estrategikoak
2. Parte hartzearen zeharkakotasuna Foru Aldundian
3. Komunikazioa, feedback-a eta zuzeneko eragina
4. Udalak
5. Herri erakunde eta mugimenduak

1 Proiektu estrategikoetan ez da ezer egin 2013an.

2. Zeharkakotasuna:

- Hilero Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea biltzen da parte hartzeko egitasmoak koordinatzeko. Departamendu bakoitzetik zuzendari bat, 8 guztira.
- Mugikortasun departamenduarekin batera Herritarrekin martxan parte hartze egitasmoa martxan jarri dugu Gipuzkoako 56 herritan autobus zerbitzua hobetzeko.
- Ogasun departamenduarekin batera Partaidetzazko Aurrekontuak parte hartze ekimena martxan dugu Urola erdian modu pilotuan gero beste eskualdetara zabaltzeko herritarrek aurrekontuaren 500.000 euroko partida batekin zer egin erabakitzeko.
- Funtzio Publikoko departamenduarekin batera Igeldo auzoa Donostiatik desanexionatzeko erabakia berrikusteko prozeduran parte hartzeko ekimen bat jarri dugu martxan, herri kontsultarekin bukatuko dena.

3. Komunikazioa, feedback-a eta zuzeneko eragina

- Komunikazioko zuzendaritzarekin batera Herritarrekin herrian ekimena dugu martxan, Diputatu Nagusia eta zuzendariak herri batera doaz bisitan eta bertan udalarekin adostutako egitarauaren bidez herriko eragile eta herritarrekin zuzeneko harremana dugu. 3 bisita egin ditugu eta 2 aurreikusita ditugu urtea amaitu aurretik.

4. Udalak:

- Herritarrekin sarea martxan dugu eta saretik aurtan 2 topaketa (Hernani eta Donostia) antolatu ditugu.
- Herrien tamainaren araberako 3 lantalde lanean dihardute urtean zehar.
- Sarearen koordinazio gunea ere eskualde guztietako ordezkariarekin eta GFAko ordezkariarekin lanean ari da bi hilabetez behingo bilerak eginez.



- Azken bi urteko parte hartzeko esperientziak jasotzeko webgunea eta liburua landu ditugu.
- Diru laguntzak eman ditugu bigarren urtez herrietan herritarren parte hartzea praktikan jartzeko. 56 udalek jaso dute aipatutako diru-laguntza.

5. Herri erakunde eta mugimenduak

- Mugimenduak elkarrizketan dinamika martxan dugu bigarren urtez. Herri mugimenduak elkar ezagutzaren bidez indartzeko dinamika da.
- Diru laguntzak eman ditugu bigarren urtez gizarte eragileek herritarren partaidetza praktikan jartzeko.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

2. Foru Batzordea parekidea da.

Mugikortasun eta Ogasunarekin garatzen ari garen parte hartze prozesuetan bereziki lantzen ari gara genero ikuspegia, horretarako Berdintasunerako zuzendaritza talde eragilean parte hartzen ari da. Bi esperientzia hauen bidez aurrerantzean parte hartzeko esperientzietan genero ikuspegia txertatzeko klabeak lortu nahi ditugu.

Igeldoko prozesuan genero ikuspegia kontuan hartu da eta emaitza datuak segregatuak emango ditugu.

3. Egindako ekintzetan parte hartze datuak jasotzen ditugu(segregatuak). Mahaia osatzerakoan gizon emakumeen oreka zaintzen dugu

Herrietara egindako bisitetan Aldundiko delegazioan oreka zaintzen dugu, desorekarik egon ez dadin.

4. eta 5. Udalak eta eragileak

Koordinazio batzordea parekidea da. Diru-laguntzetan genero ikuspegia bermatzeko irizpideak sartuta daude.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Bai egiturak osatzerakoan, bai komunikabideen aurrean edota herritarren aurrean aurkeztu behar garenean gizon emakumeen oreka bereziki lantzen dugu. Kursoaren antolatu genuen topaketetan adibidez hizlari nagusietatik 3 emakumezkoak izan ziren eta gizonezko bakarra. Parte hartzearen gaian hori ez da oso ohikoa izaten.

Oso garrantzitsua da martxan ditugun 2 parte hartze prozesuetan lankidetzan ari garela Berdintasun zuzendaritzarekin, beraiek prozesuaren talde eragilean zuzenean parte hartuz.

Diru-laguntzetan irizpideak sartuta daude baina ez dakigu gero nola betetzen diren praktikan, ez dugulako baliabiderik horri segimendua egiteko.

DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusiaren Alorra	2013	22.704.587 euro
		2014	23.642.548 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Euskara Zuzendaritza Nagusiaren diru laguntzak

Kodigoa 1.20

Genero Egokitasuna ertaina

Aurrekontua 3.587.654,00 €

1. Taula
Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentajea

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	3.090.591	3.387.792	3.305.811	3.587.654	9,62%	-2,42%	8,53%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %	20,14%	20,48%	14,56%	15,80%	1,67%	-28,89%	8,53%

Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduerak

zk.	Gaia	zenbatekoa €	%	jasotzaileak
1	Euskarazko aldizkako argitalpenak	659.895,00	18,39	60
2	Euskara sustatzeko proiektu eta jarduerak	381.084,00	10,62	62
3	Euskarazko zinemagintzaren banaketa komertziala	75.000,00	2,09	15
4	Euskararen erabilera soziala normalizatzeko udal planak	533.166,00	14,86	54
5	Itzulpen praktikak egiteko beka	5.500,00	0,15	5
6	Gipuzkoan euskaraz emititzen duten toki telebistak	257.000,00	7,16	5
7	Informazio eta komunikazio teknologiak erabiliaz, edukiak euskaraz hedatzeko proiektuak	349.932,00	9,75	132
8	Irrati lokalen euskarazko jarduna	30.000,00	0,84	15
9	Diru laguntza izendunak	1.296.077,00	36,13	22
	Guztira	3.587.654,00	100	370

- Euskararen erabilera soziala sustatu eta hedatzeko zereginetan ari diren elkarte, enpresa eta udalei bitartekoak ematea da programaren helburu orokorra.
- Jasotzaileak dira: enpresak % 30; elkarteak % 51,7; udalak % 18; pertsonak % 0,3.
- Diputatuen Kontseiluak onartzeko, alde aurreko txosten bat egingo dugu, 2012az geroztik egin izan dugun moduan, genero trataeraren ikuspegiarekin. Araubide orokorrean, 4/2005 Legeak ezartzen dituen debekuak eta irizpideak jarraituko ditugu; berariazko araubidean, genero berdintasunaren ikuspegia ongi landua izatea balioetsiko dugu, diru laguntza mota guztietan. Horrez gain, diru laguntzaren gaiak hala eskatzen duen guztietan, eskaerak baztertzeko arrazioen artean ipiniko dugu ikuspegi sexista bat agertzen duten proiektuak diru laguntzetatik kanpo uzteko.
- Erreferentzia gisa, ikus 2013ko diru laguntzak: [Euskararen erabilera sozialaren esparruan diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2013ko deialdia](#), Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 28. zk., 2013-02-11.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera



- Euskara Zuzendaritza Nagusiaren 2014ko aurrekontua (1. kapitulua alde batera utzita) 4.504.336 euro dela kontuan izanda, diru laguntzen programak aurrekontu osoaren % 79,65 egiten du.
- Ez dugu datu zehatzik diruz laguntzen ditugun jardueretan partaide zenbat diren emakumeak eta gizonak.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

- Alderdi kualitatiboan, 2014rako proiektu hauek ditugu esku artean:
 - Saio bat egin nahi genuke berdintasun teknikaria duten udaletan, euskara teknikariarekin batera, gure diru laguntzen jarraipena (generoaren adierazleak gertuagotik egiteko.
 - Galdeketa bat luzatuko diegu gure diru laguntzak jasotzen dituzten elkarteei, partaidetza eta zuzendaritzaren esparruan gizon-emakumeena arteko banaketaz, generoaren aldetik dauzkaten planteamenduez, eta abarrez.
 - Itzulpengintzaren alorrean, gaztelaniazko testuen gainean generoaren trataeran berdintasun irizpideak hobeki aplikatzeko lanean jarraituko dugu, departamentuei proposamen zehatzak eginez.

**DEPARTAMENTUA – DIPUTATU NAGUSIA**

DEPARTAMENTUA Diputatu Nagusia

2013 22.704.587 euro

2014 23.642.548 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Berdintasuna

Kodea 1.30

Genero-
garrantzia Handia

Aurrekontua 1.273.709

1. Taula:

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa, eta horrek departamenturen aurrekontuan izan duen portzentajea azken urtetan

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
Gastua, eurotan	872.709,00	1.679.702,00	1.307.534,00	1.273.709,00	92,47%	-22,16 %	-2,59 %
Departamentuar en aurrekontuaren %	3,01 %	10,15 %	8,79 %	5,39%	237,21 %	-13,40 %	-38,68%

Programaren helburuak, hartzailleak eta jarduerak

"Berdintasun Zuzendaritzaren jardunbide-ildoak biltzen ditu aurrekontu-programa honek; berdintasunerako foru politikak bultzatu, koordinatu eta horien jarraipena egiteko arduraduna da Zuzendaritza hau, horrelako politikek lehentasun politikoa baitute legealdi honetako foru gobernuan."

Programa honen **helburuak** honako hauek dira:

- . Berdintasunerako foru-politikak bultzatu, koordinatu eta horien jarraipena egitea.
- . Udal-esparruan berdintasunerako politikak sustatzea.
- . Gipuzkoa mailan, mugimendu feminista eta emakumeen elkarte-mugimendua indartzen laguntzea.
- . Emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko foru-politikak berdintasunerako politikekin lotzea.

Kolektibo hartzailleak

Funtsezko lau esparrutako hartzaillei dago zuzenduta programa hau:

- . Foru Aldundiko politikari eta teknikariei.
- . Gipuzkoako talde feministei eta emakume-taldee.
- . Gipuzkoako udalei, bai berdintasunerako arduradun diren kargu politikoen bitartez, bai berdintasunerako udal-tekniken bitartez ere.
- Gipuzkoako herritarrei oro har.



Programako jarduerak

Programa honek 2014ko jarduera hauen finantzaketa biltzen du:

- A) Berdintasunerako II. Foru Planaren sustapena, koordinazioa eta jarraipena:
- Planaren barne-lanerako prozesua abian jartzea foru-egitura ezberdinekin, bai esparru politikoan, bai esparru teknikoak, era horretan, II. Planaren sustapena, koordinazioa eta jarraipena aplikatzeko (aholkularitza, prestakuntza-ekintza programa, lan-esparru kolektiboak, prozedura komunetarako irizpideak osatu eta abar).
- B) Berdintasunerako udal-politiken sustapena:
- Udal esparruko proiektu estrategikoak diruz laguntzeko deialdia.
 - Udal esparruan berdintasuneko teknikarien arteko lan-sareak sustatzea.
 - Berdinbidean aholkularitza eta dinamizazio-zerbitzua, udalerrri txikiagoei zuzendutakoa.
 - Udalerrietan, berdintasunerako teknikarien kontratazioari laguntza ematea.
- C) Gipuzkoako talde feministek eta emakume-taldeek garatutako jarduera eta ekimenei laguntza ematea, eta GFAREN eta talde horien arteko topaketa eta elkarrizketarako esparruak sortzea:
- Udal esparruko proiektu estrategikoak diruz laguntzeko deialdia.
 - Donostiako Emakumeen Etxeari laguntza ematea, baita Gipuzkoako emakumeen botere-hartzea errazteko prozesuetarako esparru ezberdinen artean lan-sareak sortzea ere.
 - Euskal Herriko mugimendu feministaren artxibo historikoa sortzeko laguntza ematea.
 - Berdintasunerako Foru Kontseilua sortzeko partaidetza-prozesua abian jartzea.
 - EHUko udako ikastaroetan "*Demokrazia feminista izango da edo ez da izango: demokrazia inklusiborako teoria eta praxia*" ikastaroa antolatzea, *Parte Hartuz* Herritarren Partaidetzarako Institutuarekin elkarlanean.
- D) Halaber, programa horren barne egongo dira emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko foru-politikak berdintasunerako politikekin lotzeko jarduketak:
- Indarkeria matxistaren aurkako foru-politika birformulatzea, emakumeen jabeakuntza-ikuspegia oinarritzat hartuta.
 - Alarde mistoari babesa ematea, eta gatazka konpondu ahal izateko lan-prozesuak abian jartzea.
 - Gipuzkoako elkarte gastronomikoetan, eta festa zein aisia-esparruetan berdintasuna sustatzeko esperientzia pilotua garatzeko laguntza ematea.
 - 2016ko Kultur Hiriburuaren Bake Itunaren erakusketaren barne, ikuspegi feminista ere gehitzea, eta esparru horretan zenbait mintegi antolatzea indarkeria matxistaren aurkako borroka jorratzeko.
- E) Azkenik, programa horren barne ere egongo dira Gipuzkoako gizartean, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunen inguruko sentsibilizazio-jarduerak, baita gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzekoak ere.

Programaren esparruan egiten diren ekintza guztiek, programaren definizioagatik beragatik, Gipuzkoako gizon eta emakume guztien arteko berdintasuna sustatzea dute helburu, era horretan, Berdintasunerako II. Foru Planak bizitza zaintzari lehentasuna ematen dion antolaketa-eredu ekonomiko eta soziala eraikitzen laguntzeko bidean aurrera egiteko.

**Azterketa kuantitatiboa****2. Taula:****Aurrekontu-programako eta gastu-aurrekontuko jardura nagusiak**

	2012	2013	2014 (*)	13/12	14/13
Berdintasunerako II. Foru Planaren sustapena, koordinazioa eta jarraipena	150.000	135.000	100.000	90,00%	
Berdintasunerako herri politikak sustatzea	395.000	318.000	350.000	80,50%	
Sare eta jardunbide feministak finkatzen laguntzea	403.000	348.210	320.000	86,40%	
Indarkeria matxistaren aurkako programa	135.000	130.000	130.000	96,29%	
Sentsibilizazio-programa	135.000	70.000	100.000	51,85%	

(*) Gutxi gorabeherako zenbatekoak dira, 2014ko aurrekontuetan programa horri esleituko zaion aurrekontu zehatza zehazteke baitago.

3. Taula:**Foru Aldundiarekin lan egiten duten kanpo-eragileak****TALDE FEMINISTAK ETA EMAKUME TALDEAK**

Talde feministak eta emakume taldeak	Kopurua, guztira	Gurekin lan egiten duten taldeen kopurua
	96	80

UDALAK

	Kopurua, guztira	Gurekin lan egiten duten udalen kopurua
Berdintasunerako udal-teknikariak	25	21
Berdintasun-planak dituzten udalerrak	23 Gipuzkoako udalen % 26k du berdintasun-plana; Gipuzkoa osoko populazioaren % 74,53k.	20
Berdinsarean dauden udalerrak (1)	16	16
Berdinbidean dauden udalerrak (2)	69	20 udalerrak



- (1) *Berdintasunerako eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea da Berdinsarea, 54 udalerrik osatzen du, eta EAeko populazioaren % 80 baino gehiago dago ordezkaturata bertan..*
- (2) *Gipuzkoan, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, berdintasuna sustatzeko ekimenak abian jartzeko aholkularitza eta dinamizazio-zerbitzua da Berdinbidean.*

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Berdintasunerako II. Foru Planaren sustapena, koordinazioa eta jarraipena

Berdintasun Zuzendaritza Nagusian, **berdintasunerako foru-politikak bultzatu, koordinatu eta horien jarraipena egin ahal izateko**, 2013an zehar abian jarritako jarduketan artean, hauek dira aipagarrienak:

Berdintasunerako foru-egiturekin barne lan-plan bat martxan jartzea, Berdintasunerako II. Foru Plana aplikatzeko.	- Bilera politiko kopurua: 4 - Bilera tekniko kopurua: 8 - Bilera politiko-tekniko kopurua: 3 Laguntza teknikoa: 21.000€
Barne-lanerako tresnak sortzea.	- GFAko 2013rako programazio globalaren txostena osatzea. - Informazioa biltzeko fitxak. - Aholkularitza, egiaztapena eta trukatzea ahalbidetzeko online plataforma. - Jarraipenerako urteko txostenaren eredua diseinatzea. - II. Planaren proiektzioa haren garapenean zehar. 50.000€
Berdintasunerako foru-politikak indartu eta iraunaraztea.	- II. Plana zuzendu, maketatu eta diseinatzea, argitaratu dadin. - Berdintasunerako foru arau potentzial bat edukitzearen aukera aztertzea, era horretan, berdintasunerako foru-politiken iraunkortasuna sustatzeko. 10.000€
"Genero-adierazleei" buruzko prestakuntza-ikastaroa berdintasunerako foru-teknikarien egiturentzat (idazkaritza teknikoak eta zerbitzuburuak).	Partaide-kopurua: - Emakumeak: 16 - Gizonak: 26 6.000€
Idazkari teknikoekin prestakuntza-ekintza plan bat abian jartzea, kontratu eta diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak sartzeko	- Lantsaio-kopurua: 4 - Partaide-kopurua: 8 - Emakumeak: 4 - Gizonak: 2 10.000€



Departamentuei aholkularitza ematea, Berdintasunerako II. Foru Planeko esparruan, politika batzuk generoaren ikuspegiaren berrikusteko	Departamentu hauekin egin da lan gehien: - Gizarte Politikako Departamentuarekin. - Ogasuna eta Finantza Departamentuarekin. - Gazteria Departamentuarekin. - Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzarekin. 6.000€
Departamentu guztiei aholkularitza ematea, 2013ko programazio-esparruan ekintza zehatzak abian jartzeko.	Departamentu eta zuzendaritza hauei eman zaie aholkularitza: - Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari. - Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuari. - Euskara Zuzendaritzari. - Kirol Zuzendaritzari. - Araubide Juridikoko Zuzendaritzari. - Modernizazioko Zuzendaritzari.

"Azpiprograma" honen xedea da berdintasunerako politikak sustatzea foru-mailan. Ildo horretan, Berdintasunerako II. Foru Plana aplikatze aldera, barne-lana ahalbidetzen duen lan-sistema bat osatu da, tresna hori erabiliko baita berdintasunerako foru-politiken plangintza egiteko.

Barne lan-sistema horrek lan-ildo ezberdinak biltzen ditu:

- Programaziorako tresna eta prozesu komunak oinarritzat hartuta, sistematizazioa ezartzea, eta departamentu bakoitzeko lanaren jarraipena egitea.
- Departamentu arteko lan-esparruak zehaztea, bai maila politikoan, bai maila teknikoan, bai maila politiko-teknikoan ere, era horretan, lehentasunak eta estrategiak adostu eta aurrerapenak, zalantzak zein oztopoak partekatu, modu bateratuan hausnartu eta ikaskuntza kolektiboa sortzeko.
- Departamentu arteko lan-esparruak, *ad-hoc* izaerakoak, ezartzea, foru-politika estrategikoagoen azterketaz gain garatu beharrekoak, hain zuzen ere gizonen eta emakumeen arteko Berdintasunerako II. Foru Planaren esparruan: zehazki, politika ekonomikoa zein ogasun-politikan eta gizarte politikan.
- Gaikuntza-prozesuak abian jartzea, berdintasunerako foru-politiken garapenerako barne-baldintzak hobetzen dituzten prestakuntza-ekintzetan oinarrituta.
- Gai komunetan prestakuntza ematea, era horretan, teknikariek tresna zehatzak izan ditzaten foru-politika ezberdinetan berdintasunaren aldeko jarduera zehatzak abian jarri eta horien jarraipena egiteko.
- Aholkularitza-mekanismoak eskuragarri jartzea, era horretan, *Berdintasunerako II. Foru Plana* aplikatzeko orduan, urteko programazioen esparruaren barne, departamentu ezberdinetan ekintza zehatzak abian jartzeko.

Horrekin guztiarekin lan-egitura konplexu baina koherentea sortu da, berdintasunerako politiken garapen egokirako funtsezko alderdietan eragina izateko: konpromisoan, koordinazioan, gaikuntzan, plangintzan eta jarraipenean, hain zuzen.



2014tik aurrera, egitura hori guztia finkatu egin beharko da, eta horretarako baliabide ekonomiko, pertsonal zein prestakuntza eta antolakuntza-baliabide berriak aktibatu beharko dira.

Berdintasunerako herri politikak sustatzea

Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak, **udal-mailan berdintasunerako politikak sustatzeko asmoz**, jarduera hauek jarri ditu abian 2013an zehar.

<p>Berdintasunerako politiken esparru finko bat duten udalerrien proiektu estrategikoei laguntza ematea (*),</p> <p><i>(*) Berariazko plangintza, langileak eta aurrekontua</i></p>	<p>Diru-laguntzak emateko deialdia: 200.000€</p> <p>Diruz lagundutako erakundeak:</p> <ul style="list-style-type: none">16 udalMankomunitate 1 (4 udalerrri)30 proiektu
<p>Gipuzkoan, udalerrri txikietan, berdintasuna sustatzeko ekimenak abian jartzeko aholkularitza eta dinamizazio-zerbitzua ematea (<i>Berdinbidean</i> programa),</p>	<p>Aholkularitza-zerbitzua: 20.000€</p> <p>Prestakuntza-mintegiak: 11.000 €</p> <p>Aholkularitza eta dinamizazioa jasotzen ari diren udalerrien kopurua:</p> <ul style="list-style-type: none">- 13 udalerrri- 3 mankomunitate (7 udalerrri)- <i>Txikien taldea</i> (14 udalerrri)^(*) <p>Lan-ildoak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea.- Emakumeen jabeakuntza eta partaidetza sozio-politikoaren sustatzea.- Udalerrietan indarkeria matxista sortzen den egoeretan aplikatu beharreko jardueraren protokoloak zehaztea. <p><i>(*) <1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak</i></p>
<p><i>Berdinbidean</i> programaren barne, berdintasuneko udal-arduradunen artean hausnarketa, koordinazioa eta hartu-emanak egiteko esparruak sortzea, bai maila politikoan, bai maila teknikoan.</p>	<p>Lan-topaketak: 17.000€</p> <p>Egindako topaketa-kopurua:</p> <ul style="list-style-type: none">- Kolektiboak: 10- Udal-mailan: 46 <p>Lanerako gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Lan-ildo bakoitzaren esparru teorikoa.- Ildo bakoitzerako lan-plan zehatza.- Testuinguru bakoitzera egokitutako jarduketaren diseinua.



<p><i>Berdinsarea</i> (Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako sarea) ekimenarekin elkarlanean, Gipuzkoako Berdintasunerako Teknika Sarea martxan jarri eta dinamizatzea, era horretan, Gipuzkoa mailan egiten den lana indartzeko.</p>	<p>Laguntza teknikoa: 17.000€ Prestakuntza-ekintza programa: 18.000€ Egindako topaketa-kopurua: 17 Lanerako gaiak: - Emakumeen jabeak eta partaidetza sozio-politikoak sustatzea. - Emakumeen aurkako indarkeria matxista. - Genero-mainstreaminga.</p> <p>Teknikari partaideen kopurua sarean: 20</p>
<p>Udalek berdintasunerako teknikariak kontratatzeke laguntza ematea.</p>	<p>Txosten juridiko bat osatzea, egungo lege-esparruan, udalek kontratatzeke dituzten aukerak aztertzeke.</p> <p>Udaletxe interesatuekin hitzarmenak sinatzea, era horretan, berdintasunerako udal-egiturak sortu edo indartzeko: 90.000€</p> <p>Sinatutako hitzarmen-kopurua: 4</p>

Azpiprograma honen helburua da udal-esparruan berdintasunerako politikak sustatzea. Horregatik, herri administrazioan eragiten da zuzenean, udalak beraiek izanik herritarrentzako programa zehatzak abian jarri behar dituztenak.

Ildo horretan, gure ustez, udal-esparruan lanerako sare bat finkatzen ari da, eta sare horrek ezaugarri hauek ditu:

- Arduradun politikoak eta teknikariak hartzen ditu barne.
- Udalerrri handiekin eta txikiekin egiten du lan, berdintasunaren esparruan, orain arte, bereizita baitzeuden.
- Aldi berean, lurraldez gaindiko bestelako sareekin ere koordinatzeke da, lan komuna ere indartuz.

Sare eta jardunbide feministak finkatzen laguntzea

Berdintasun Zuzendaritza Nagusitik, **Gipuzkoan sare eta jardunbide feministak finkatzeko** helburupean, 2013an zehar abian jarritako ekimenen artean, honako hauek dira aipagarriak:

<p>Gipuzkoako elkarte feministek eta emakume-taldeek abian jarritako proiektuei laguntza ematea.</p>	<p>Deialdia eta diru-laguntzak: 200.000€ Diruz lagundutako erakundeak: 36 elkarte Proiektu-kopurua: 49</p>
<p>Gipuzkoako sare eta jardunbide feministei laguntza ematea.</p>	<p>- Gipuzkoako kolektiboen ordezkariekin bigarren topaketa feminista bat antolatzea, "Batea II" izenekoa: 4.000€ - Emakume parte-hartzaile kopurua: 30 - Ordezkatutako elkarteak: 7 - Hitzarmena Donostiako Emakumeen Etxea elkartearekin 36.210€</p>



GFaren eta Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen arteko topaketa eta elkarrizketarako esparruak sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Mugimendu feministarekin partaidetza-prozesu bat abian jartzea, Gipuzkoako Berdintasunerako Foru Kontseilua modu bateratuan diseinatzeko: 35.000€ - Gipuzkoako Berdintasunerako Foroaren topaketa: 1.500 € <ul style="list-style-type: none"> - Emakume parte-hartzaile kopurua: 60 - Ordezkatutako elkarteak: 27
Gipuzkoako Mugimendu feministaren historiari buruzko artxiboa sortzeko laguntza ematea.	<ul style="list-style-type: none"> - Bilgune Feminista artxiboa sortzeko laguntza: 15.500€ - Hitzarmena Koldo Mitxelena kulturunearekin, artxiboa bertan kokatzeko.
<i>Parte Hartuz</i> erakundearekin elkarlanean, udako ikastaro bat antolatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - "Demokrazia parte-hartzaileari" buruzko ikastaroa, EHUko udako ikastaroen esparruan: 5.000€ Partaide-kopurua: 70 pertsona
Indarkeria matxistari buruzko mintegi bat antolatzea 2016 Kultur Hiriburuaren Bake Itunaren ildoan.	<ul style="list-style-type: none"> - "Ekintza eta pentsamendua: indarkeria sexista berreraikiz": 7.000€ Partaide-kopurua: 300 pertsona

Azpiprograma honetako ekintzen helburua zehazki emakumeei zuzenduta dago, era horretan, ikuspegi feminista eta botere-emailea oinarritzat hartuta, emakume eta feministen elkarte-jardunbideak sustatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta emakume zein feminista-mugimenduen arteko topaketa eta elkarrizketaguneak sortzeko.

Ildo horretan, lan-esparru honetako funtsezko balioa da laneko eta trukerako esparruei buruzko azterketa, hausnarketa eta eztabaida-prozesuari ekin izana, baita emakume zein feminista-mugimenduekin partaidetza-prozesu bat abian jarri izana ere, era horretan, Gipuzkoako Berdintasunerako Foru Kontseilua sortzeko, hain zuzen ere mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduarekin solaskidetza politikoa egiteko organoa izan dadin.

Indarkeria matxistaren aurkako borroka

Lan-esparru horretan, bi helburu estrategiko nagusi proposatzen dira.

- Alde batetik, **emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko foru-politikak berdintasunerako politikekin lotzea**. Horrek esan nahi du, politika horiek guztiak berrikusi egin behar direla, zuzeneko indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei boterea hartzen laguntzeko.
- Bestetik, **indarkeriaren kontzeptua zabaltzea**, ohiko zuzeneko indarkeria-ereduen haraindian. Ildo horretan, izaera kultural eta sinbolikoko zeharkako indarkeriari aurre egiteko jarduketak ere abian jarri nahi dira.

2013an zehar abian jarritako jarduera aipagarrienak honako hauek dira:

<p>Zuzeneko indarkeriaren aurkako foru politikak berrikusi eta birdefinitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Indarkeriari ikuspegi botere-emailearekin aurre egiten dioten emakumeentzako baliabideak aztertu eta ebaluatzea, eta horiek hobetzeko proposamenak egitea. - Udalerriek indarkeria matxistari aurre egiteko egiten duten lana aztertzea, sareko lan-eredu deszentralizatuaren bitartez, Gipuzkoa osoan egiten diren ekimenei koherentzia emateko. <p>Aurrekontua: 38.0000€</p>
<p>Aisialdia eta ospakizun-eredu inklusiboak sustatzen dituzten prozesuei laguntza ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hitzarmena Irungo alarde mistoarekin: 30.000€ - Irungo eta Hondarribiko gatazkak konpontzen laguntzeko erakunde arteko esparrua sortzea. - Gastronomia elkarteetan zabalitze inklusiboa egiteko prozesuei laguntza ematea.
<p>Gazteekin indarkeria matxistari aurrea hartzeko lan egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Beldur Barik</i> erakunde arteko programa: 19.000€ - Udal-esparruan haur eta gazteekin lan egiten duten eragileen prestakuntza-programa: 3.200 €
<p>Indarkeria matxistari buruzko mintegi bat antolatzea eta ikuspegi feminista sartzeari 2016 Kultur Hiriburuaren Bake Itunaren esparruan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikuspegi feminista sartzeari Bake-itunaren azalpenean. - Indarkeria matxistari buruzko mintegia, Beatriz Preciadorekin. <p>Partaide-kopurua: 300 pertsona</p>

Abian jarritako jarduerari esker, bi esparrutan aurrerapausoak ematen ari gara:

- Alde batetik, indarkeriaren aurkako borrokan, foru politikak antolatu ditugu, berdintasunerako politiken esparruan sustatzen diren proposamenen eta Gizarte Politikako Departamentuan egiten den lanaren arteko koordinazio eta koherentzia sustatuz.
- Bestetik, emakumeen aurkako indarkeria matxista modu zabalagoan, ikuspegi globalago eta integratzaileagoaren arabera, ulertzeko sentsibilizazio sozialean aurrera egin dugu.

Sentsibilizazioa

Lan-esparru honetan, ikuspegi feministan oinarrituta, bizitza-iraunkortasunari lotutako **eztabaida soziala** sustatzeko lehen pausoak eman dira.

Lan-esparru zaila da, bizitza-iraunkortasuna Berdintasunerako II. Foru Planeko estrategia-ildo ezberdinei baitago lotuta:

- Ongi bizitzeko ekonomiari.
- Zaintza duin eta unibertsalei.
- Ongi bizitzeko inguruneari.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzari.

2013. urtean zehar garatutako jarduera nagusiak hauek dira:



Sentsibilizazio-kanpainak	<p><i>Berdintasuna</i> kanpaina Jorratutako gaiak: - I. Fasea: Indarkeria / Zainketak - II. Fasea: Ekonomia / Baliabideak eskuratzeko aukera 25.000 €</p> <p><i>Egiteko asko</i> kanpaina (zuzenean II. Planari lotutakoa) - Zaintza duin eta unibertsalak. - Bizi-iraunkortasunerako ekonomia. - Indarkeria matxistarik gabeko bizitza. - Partaidetza sozio-politikoak. 25.000 €</p>
Online komunikazioa	<p>- Berdintasun Zuzendaritza Nagusiaren <i>Berdintasuna.tv</i> ikus-entzunezko kanala. - Sare sozialetan profilak sortu eta kudeatzea 25.000€</p> <p>- Berdintasun Zuzendaritzaren webgunea diseinatu eta abian jartzea. 20.000€</p>

Garatutako ekintzei esker, gai honi buruzko hausnarketa eta eztabaida egiteko mezuak bidali dira; azken finean, bizitzaren zaintzari eta iraunkortasunari arreta gehien ematea baita berdintasunerako foru politiken azken helburua.

Ildo horretan, gizarte sentsibilizazioa funtsezkoa da foru-jarduera batzuk ulertu eta babesteko. Bizitzaren iraunkortasunaren alde lan egitea zaila da, eta gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumen-mugak direla-eta, oztopo nabariak baitaude ildo horretan aurrera egin ahal izateko, ezin baitu funtsezko arlo-esparru batzuetan jardun: esaterako, hezkuntzan, lanean, lan-ikuskaritzan, osasunean, gizarte segurantzian, hirigintza-plangintzan eta abar.

Horregatik, foru-jarduketa esparrua mugatu behar da, hori oinarritzat hartuta, politika publikoen muinean zaintza eta bizi-iraunkortasuna ezartzeko jarduerak diseina daitezten.

DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA - DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusiaren Alorra.	2013	22.704.587 euro
	Area del Diputado General.	2014	23.642.548 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Migrazio eta Aniztasuna.

Kodigoa 1.40

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 831.727

1. Taula
Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia

	2012	2013	2014	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	1.143.956,00	892.568,00	831.727,00	-21,98%	-6,82%
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO %	6,91%	3,93%	3,52%	-43,14%	-10,51%

Programaren helburuak, hartzailleak eta jarduerak

Gure programa zuzendua dago Gipuzkoako herritar guztiei. Jarraian Zuzendaritzaren helburuak estrategiak eta ekimenak jasotzen dira:

Helburu Nagusiak:

- Paradigma aldaketa bat sustatzea arlo honetan: Migrazio eta aniztasun politikak bultzatzea eta kudeatzea ikuspegi propio, nazional, zeharkako eta integral batetik, Gipuzkoako herritar guztiak barne hartzen dituen, Euskal Herria erreferentia bilakatuz eta bere errealitatea, politikoki eta kulturalki gutxiagotua duen nazio izaera, abiapuntu bihurtuz.
- Asimilazio ereduaren aurrean, elkarren aitortzan oinarrituta politikak abiatzea, gure herritar guztien aukera berdintasuna bermatzeko bitartekoak jarri, jatorri aniztasuna gipuzkoar batentzat ere oztopo bilaka ez dadin bere eskubide guztiak bermaturik izateko.
- Demokrazia parte-hartzailea sustatuz, migrazioaren eta aniztasunaren gaiei dagokienez erabaki propioak hartu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak sortzea.



Estrategiak	Aurrera eramateko ekintzak eta tresnak
<p>1. Migrazioa, aniztasuna eta elkarbizitzari buruzko politika partekatua eta parte-hartzaileak sustatzeko estrategia: Gipuzkoa eta Euskal Herria jatorri aniztasunetik herri gisa nola eraiki definitu eta erabakitzeke.</p>	<ul style="list-style-type: none">• Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritzaren Dinamizazio Taldea sortzea. Arlo eta esparru ezberdinetan lana egiten duten pertsona adituen eta erreferentziales osatutako lan taldea sortzea.• Jatorri anitz, herri bat izeneko dinamika parte-hartzaile bat sortzea, ikuspegi propio eta nazionaletik, non parte hartzeko aukera izango baitute jatorri anitzeko herri eta herrialdeko bizilagun, talde eta jendarte eragile orok, zein Aldundiak berak ere, beste agente bat gehiago gisa.• Erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazio sarea. Erabakiak hartzeko marko honetan, erakundeen arteko sare bat eraikiko da, lankidetzak, laguntza, babesa eta aholkularitza elkarri emateko, udalen eta bestelako erakundeen artean, Foru Aldundia barne. Sare honen helburua izango da, neurri handi batean, erakundeei marko bat eskaintzea aukera izan dezaten gune parte-hartzaileetan hartutako erabakiak bateratzeko, koherentzia emateko, konpartitzeko eta legitimatzeko, herritarrek proposatutako politika eta ekintzen eta erakundeek aurrera eramandako ekimenen artean beharrezkoak diren sinergiak eta zubiak ahalbidetuz, betiere bigarrenak lehenen esanetara jarritz.
<p>2. Jatorriaren arabera Gipuzkoako benetako argazkia osatu, aztertu eta ezagutzera ematea eta Euskal Herriko gainerako herrialdeenarekin alderatzea eta osatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none">• Diagnostiko kuantitatibo bat gauzatzea• Diagnostiko kualitatibo bat osatzea
<p>3. Maila akademikoan arloari dagokionez jakintza eraikitzekeko estrategia bat diseinatu eta martxan jarri.</p>	<p>Euskal Herriko Unibertsitate ezberdinekin elkarlana:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ikerketa lerro bat irekitzea migrazio eta aniztasunaren kudeaketari buruz Euskal Herrian zein beste estaturik gabeko nazioetan.• Prestakuntza programak maila ezberdinetan abiatzea: ikastaroak, nazio arteko sinposiumak eta gradu-ondorengo ikasketak.• Gertuko historian zehar beste herri eta nazio batzuetatik etorritako pertsonen herri hau eraikitzekeko egindako ekarpenen memoria berreskuratzeko ekimen bat abiatzea
<p>4. Gipuzkoan eta Euskal herrian dagoen aniztasuna bera kohesio elementu bilakatzeko estrategia</p>	<ul style="list-style-type: none">• Gipuzkoa eta EH, euskara eta euskal kultura beste herrialde eta kultura batzuetatik datozeinei eta, aldi berean Gipuzkoako jendarteari beste jatorria duten gipuzkoarren errealitatea, kultura eta hizkuntzak ezagutzera emateko guneak, ekintzak eta euskarriak sortzea:
<p>5. Elkarren aitortzaren oinarri gisa jatorri ezberdinetako gipuzkoarrek elkar ezagutzeko eta elkarren berri izan dezaten estrategia</p>	<ul style="list-style-type: none">• Sentsibilizazio dinamikak, jardunaldiak eta kanpainak• Erakusketak, liburuxkak, oinarrizko hiztegiak eta bestelako



6. Xenofobia eta arrazakeriaren kontrako estrategia	ikus-entzunezko euskarriak sortzea. <ul style="list-style-type: none">Jarrera xenofobo eta arrazistak prebenitzeko eta salatzeko dinamikak
7. Zeharkako ikuspegia garatzeko estrategia.	<ul style="list-style-type: none">GFAREN gainerako departamendu eta zuzendaritzekin zein Gipuzkoako udalekin gipuzkoarren jatorri aniztasuna zeharka elementu gisa kontenplatzeko planak eta elkar-kudeaketan oinarritutako ekintza zehatzak.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Zuzendaritzatik tresnak jartzen ari gara aztertzeko Gipuzkoako biztanleria osoaren jatorria eta jaioterria ezagutzeko. Datuak aztertzeko martxan jarri dugun tresnak aukera ematen du jatorria, adina eta sexua aldagaiak gurutzatzeko.

Trezna etengabe osatu eta gaurkotzeko pentsatuta dago.

Hau da bere lotura:

<http://gipuzkoaaniza.net/migrazio>

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Maila kualitatiboan aurreko ejerzizioan diagnostiko kualitatiboa egiteko baliabideak abiatu genituen jatorri, kultura, hizkuntza eta identitate aniztasunaren inguruan herritarren pertzepzioak eta iritziak jasotzeko, batez ere denon arteko bizikidetzari dagokionez. 2014 urtean zehar azterketa kualitatibo honen emaitzak eskura izatea espero dugu.

**DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA - DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusiaren Alorra Area del Diputado General	2013	22.704.587 euro
		2014	23.642.548 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Komunikazioa

Kodigoa 1.50

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 1.814.744

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	3.273.019,00	1.526.784,00	2.208.175,00	1.814.744,00	-53,35%	44,63%	-17,82%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %	21,33%	9,23%	9,73%	7,68%	-56,74%	5,40%	-21,08%

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren helburu nagusia da Gipuzkoako Foru Aldundiko komunikazio politika lantzea eta gauzatzea.

Aurrekontuko programa honen kargura zenbait ekintza agingo dira. Haien artean aipatu ditzakegu:

- Gizarte hedabideei Foru Aldundiaren eta diputatu nagusiaren jardueraren berri ematea.
- Foru gobernuaren programaren jardura nagusien garapenaren komunikazioari ekitea.
- Foru gobernuaren programako jardura nagusiak komunikatzeko egin behar diren kanpainak departamentuekin batera planteatzea.
- Kanpoko komunikazioan, Foru Aldundiko departamentuei laguntzea bere komunikazio ekintzak bideratzeko.
- Lurraldeko atari instituzionala gipuzkoa.net-eko edukiak koordinatzea eta arduratzea. Baita Diputatu nagusiaren eta herritarren partaidetzaren web guneak sortzea ere.



Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak, lehen azalduak diren ekintzetan ahalegintzen du gaur egungo foru gobernuaren genero politika gehitzea.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

**DIPUTATU NAGUSIAREN DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA DIPUTATU NAGUSIA	2013	22.704.587 euro
	2014	23.642.548 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena GIZA ESKUBIDEEN ETA OROIMEN HISTORIKOAREN ZUZENDARITZA

Kodigoa 1.60

Genero Egokitasuna Altua

Aurrekontua 796.509

1. Taula

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia

	2012	2013	2014	13/12	14/13
GASTUA (milaka euro)	878,96	688,46	796,51	-21,67%	15,69%
DEPT. AURREK. PROP. %	5,31%	3,03%	3,37%	-42,92%	11,10%

Programaren helburuak, hartzailleak eta jarduerak

Giza eskubideen eta oroimen historikoaren proiektuak gauzatzeko udalei eta elkarteei diru laguntzak emateko programaren oinarri arautzaileak.

Oinarri espezifikoa jasotzen da, proiektuak ebaluatzerakoan, puntuak ematea sexuaren arabera banaketa, hizkuntzaren erabilera ez sexista, eta emakumeek eta gizonak bizi dituzten desberdintasun egoeren azterketa aurreikusten dituzten proiektuei.

Entitateekin edo beste erakundeekin sinatutako hitzarmenetan, horiek hizkuntzaren erabilera ez sexista egiteko beharra aurreikusten da.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Ez dugu datu zehatzik galdera honen inguruko zifrak eskaintzeko.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Beharrezkoa izango litzateke ereduak eskaintzea datuak biltzeko, jardunaldietarako, ... ondoren tratatu ahal izateko.

Une honetan giza baliabideak falta zaizkigu dokumentazio hori prestatzeko.

DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA - DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusiaren Alorra Area del Diputado General	2013	22.704.587 euro
		2014	23.642.548 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Lurralde Garapena

Kodigoa 1.70

**Genero
Egokitasuna** Handia

Aurrekontua 7.172.488

1. Taula
Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA	-	-	1.924.300,00	7.172.488,00	-	-	272,73%
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO %	-	-	8,48%	30,34%	-	-	257,95%

Programaren helburuak, hartzailleak eta jarduerak

Zuzendaritza Nagusi berri hau sortu da, alde batetik, Gipuzkoako lurralde garapena eta gizarte eta ekonomia mailako kohesioa sustatzeko.

Zehazki, Zuzendaritza nagusi honen eginkizunak hauek dira:

- Gizarte eta erakunde arloko udalerrri eta eskualde mailako sareak sortzea.
- Aktore publiko zein pribatuen ezagutza eta konfiantza sustatzea.
- Udalerrien, eskualdeen eta Foru Aldundiaren artean herrialde estrategiak eta esperientziak trukatu eta eraikitzea.
- Berrikuntza eta ikerkuntza sareak bultzatu, eta tokiko ekimen berritzaileak babestea.

Horretarako 70. programan hau sartzen ekintza batzuk aurreikusten dira. Besteak beste, Gipuzkoako herrietako udalek aurrera eramaten dituzten enplegu ekimenei laguntzeko ildo bat ezartzea, eta laguntzak ematea, eskualdeko garapen agentziaen bitartez, lurralde garapena eta gizarte eta ekonomia mailako kohesioa sustatzeko diru.



**Lurralde garapeneko estrategien diseinuan gobernu eredu berri bat eratzen
laguntzeko emandako diru laguntzak:**

Eskualdea	Entitatea	Diru laguntza
Urola Garaia	Urola Garaiko Garapenerako Agentzia SA.	25.863,60 €
Urola Erdia	Iraurgi Lantzen SA.	27.066,90 €
Goierri	Goierriko Ekimena SA.	30.543,30 €
Urola Kosta	Urola Kostako Udal Elkarte / Mancomunidad de Urola Costa.	30.757,80 €
Tolosaldea	Tolosaldea Garatzen SA.	31.901,10 €
Debabarrena	Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarte, SA / Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, S.A.	34.525,20 €
Debagoiena	Debagoieneko Mankomunitatea / Mancomunidad del Alto Deba.	36.489,90 €
Buruntzaldea	Hernaniko Udala / Ayuntamiento de Hernani (Buruntzaldea).	38.643,30 €
Oarsoaldea	Oarsoaldea, S.A.	39.376,20 €
Bidasoa	Bidasoako Garapenerako Agentzia SA / Agencia de Desarrollo del Bidasoa, S.A.	41.286,00 €
Donostia	Donostiako Sustapena, SA / Fomento de San Sebastián, S.A.	73.922,70 €
		410.376,00 €

Enplegua sustatzeko Gipuzkoako udaletan emandako diru laguntzak:

Udalerría	Langabezia 2013ko lehenengo hiruhilekoan	Laguntzen zenbatekoa Importe de las ayudas
DONOSTIA – SAN SEBASTIÁN	12.008	105.000
IRÚN	5.567	75.000
ERRENTERIA	3.407	60.000
EIBAR	2.313	60.000
ARRASATE - MONDRAGON	1.593	37.500
LASARTE ORIA	1.513	37.500
ZARAUTZ	1.465	37.500
HERNANI	1.441	37.500
PASAIA	1.373	37.500
TOLOSA	1.335	37.500
ANDOAIN	1.152	37.500
AZPEITIA	1.059	37.500
HONDARRIBIA	1.026	37.500
BERGARA	946	22.500
BEASAIN	898	22.500
AZKOITIA	801	22.500
ZUMARRAGA	792	22.500



ELGOIBAR	735	22.500
ORDIZIA	680	22.500
ZUMAIA	645	22.500
OIARTZUN	577	22.500
OÑATI	518	22.500
LEZO	493	22.500
LEGAZPIA	489	22.500
URRETXU	468	22.500
VILLABONA	467	22.500
URNIETA	419	22.500
USURBIL	372	15.000
SORALUZE	361	15.000
ASTIGARRAGA	346	15.000
ARETXABAL.	345	15.000
LAZKAO	337	15.000
IBARRA	336	15.000
ORIO	333	15.000
MOTRIKU	326	15.000
DEBA	318	15.000
ESKORIATZA	245	15.000
ZESTOA	240	15.000
ZIZURKIL	205	15.000
ANOETA	152	7.500
ALEGIA	140	7.500
MENDARO	126	7.500
GETARIA	118	7.500
ANTZUOLA	116	7.500
IRURA	114	7.500
IDIAZABAL	110	7.500
ZALDIBIA	97	7.500
ASTEASU	96	7.500
AIA	95	7.500
ZEGAMA	87	7.500
LEGORRETA	77	7.500
ORMAIZTEGI	75	7.500



AIZARNAZABAL	74	7.500
ATAUN	67	7.500
SEGURA	67	7.500
BERASTEGI	53	7.500
ELGETA	51	7.500
OLABERRIA	51	7.500
LIZARTZA	48	7.500
ITSASONDO	44	7.500
AMEZKETA	42	7.500
BERROBI	40	7.500
ERREZIL	37	7.500
BIDEGOYAN	34	7.500
ALTZO	31	7.500
EZKIO-ITSASO	31	7.500
BELAUNTZA	28	7.500
ADUNA	24	7.500
LEABURU	22	7.500
GABIRIA	21	7.500
ALKIZA	20	7.500
IKAZTEGIETA	20	7.500
ABALTZISKETA	17	7.500
LARRAUL	16	7.500
HERNIALDE	14	7.500
ALBIZTUR	12	7.500
LEINTZ-GATZAGA	11	7.500
MUTILOA	10	7.500
ARAMA	9	7.500
BEIZAMA	9	7.500
ELDUAIN	9	7.500
ALTZAGA	7	7.500
GAZTELU	7	7.500
ZERAIN	7	7.500
ORENDAIN	6	7.500
OREXA	5	7.500
BALIARRAIN	4	7.500



GAINTZA	4	7.500
GUZTIRA/TOTAL	50.299	1.500.000

Jarduera hauen ariketan, Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak dagozkion hitzarmenetan eta diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan berdintasunari buruzko klausulak sartzea bultzatuko ditu.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa